


## ANIZTASUNA ESKOLAN



Iturria: Tonucci (2007; 40 años con ojos de niño)

## 4. moduluko diziplina arteko lanerako ikasleen gida

### HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

## AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA
2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA
3. EZAUGARRI OROKORRAK
  - 3.1. Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradua
4. MODULUAREN GAITASUNAK ETA IKASTE EMAITZAK
5. KASUAREN KONTAKETA
  - 5.1. Helburua
  - 5.2. Kontaketa eraikitze urratsak
6. MODULUAREN METODOLOGIA
  - 6.1. Kasuaren metodoa
  - 6.2. Lan-taldeen antolaketa
  - 6.3. Lanaren faseak
  - 6.4. Antolaketa eta ematekoak
7. EBALUAZIOA
8. BIBLIOGRAFIA

## 1. TESTUINGURUA

<b>Zentroa:</b> Hezkuntza eta Kirol Fakultatea
<b>Moduluaren izena:</b> <i>Eskolako aniztasuna</i>
<b>Maila:</b> 2.a <b>Lauhilekoa:</b> 2.a

### 1. Koadroa: Kokapena

Gida honetan, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ematen diren Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetak *Eskolako aniztasuna* laugarren moduluko diziplina arteko lana aurkeztuko dugu. Modulu hori, hain zuzen ere, bi titulazioetako bigarren mailako bigarren lauhilekoan ematen da. Bost ikasgai daude *Eskolako aniztasuna* moduluan: Ikastetxearen antolakuntza, Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan, Eskola inklusiboaren oinarriak eta Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan.

## 2. MODULUKO IRAKASLE TALDEA

### Euskaraz

#### HAUR HEZKUNTZA

Ikastetxearen antolakuntza	Elena Lopez de Arana	945 01 4205	<a href="mailto:elena.lopezdearana@ehu.es">elena.lopezdearana@ehu.es</a>
Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan	Saioa Larraza		<a href="mailto:saioa.larraza@ehu.es">saioa.larraza@ehu.es</a>
IKTak Haur Hezkuntzan	Pilar Aristizabal	945 01 4181	<a href="mailto:p.aristizabal@ehu.es">p.aristizabal@ehu.es</a>
Eskola Inklusiboaren oinarriak	Ane Elkoro	945 013291	<a href="mailto:ane.elkoro@ehu.es">ane.elkoro@ehu.es</a>
Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan	Arantza Fernández	945 01 4221	<a href="mailto:arantza.fernandez@ehu.es">arantza.fernandez@ehu.es</a>

### 2. koadroa: HH euskaraz

## LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxearen antolakuntza	Jose Antonio Ibarrola	945 01 4209	<a href="mailto:joseantonio.ibarrola@ehu.eus">joseantonio.ibarrola@ehu.eus</a>
Hizkuntzaren didaktikaren oinarriak testuinguru eleanitzetan	Begoña Errasti Urtzi Reguero	945 01 4164 945 01 4037	<a href="mailto:bego.errasti@ehu.eus">bego.errasti@ehu.eus</a> <a href="mailto:urtzi.reguero@ehu.eus">urtzi.reguero@ehu.eus</a>
Eskola Inklusiboaren oinarriak	Ana Luisa López Juan Carlos Romera	945 01 4216 945 01 4091	<a href="mailto:analuisa.lopez@ehu.eus">analuisa.lopez@ehu.eus</a> <a href="mailto:juancarlos.romera@ehu.eus">juancarlos.romera@ehu.eus</a>
Zailtasunak garapenean eta ikaskuntzan	Estibaliz Ramos	945 01 4091	<a href="mailto:estibaliz.ramos@ehu.eus">estibaliz.ramos@ehu.eus</a>

3. koadroa: LH euskaraz

## Gazteleraz

### EDUCACIÓN INFANTIL

Organización del centro educativo	Elena López de Arana	945 014205	<a href="mailto:elena.lopezdearana@ehu.eus">elena.lopezdearana@ehu.eus</a>
Fundamentos de didáctica de la lengua para Educación Infantil en contextos multilingües	Paloma Rodríguez	945 01 4170	<a href="mailto:paloma.rodriguez@ehu.eus">paloma.rodriguez@ehu.eus</a>
TIC en la Educación Infantil	Aingeru Gutiérrez- Cabello	943 01 5508	<a href="mailto:aingeru.gutierrez-cabello@ehu.eus">aingeru.gutierrez-cabello@ehu.eus</a>
Bases de la Escuela Inclusiva	Miren Llona	945 01 3617	<a href="mailto:maria.llona@ehu.eus">maria.llona@ehu.eus</a>
Dificultades en el desarrollo y en el aprendizaje	Iratxe Antonio	945 01 4225	<a href="mailto:iratxe.antonio@ehu.eus">iratxe.antonio@ehu.eus</a>

4. koadroa: El gazteleraz

## Hirueleduna

### LEHEN HEZKUNTZA

Organización del centro educativo	Jose Antonio Ibarrola	945 01 4209	<a href="mailto:joseantonio.ibarrola@ehu.eus">joseantonio.ibarrola@ehu.eus</a>
Principles of language teaching for Primary Education	Asier Barandiaran	945 01 4194	<a href="mailto:asier.barandiaran@ehu.eus">asier.barandiaran@ehu.eus</a>
Principles of the inclusive school	Ana Luisa López	945 01 4216	<a href="mailto:analuisa.lopez@ehu.eus">analuisa.lopez@ehu.eus</a>
Dificultades en el desarrollo y en el aprendizaje	Maitane Belasko	945 01 4201	<a href="mailto:maitane.belasko@ehu.eus">maitane.belasko@ehu.eus</a>

5. koadroa: LH hirueleduna

### 6. **EZAUGARRI OROKORRAK**

Eskola askotan egun dauden kezketako bat testuinguru horretan diharduten pertsona guztien arteko elkarbizitza bermatzea da. Datuen arabera, ikasleen kopuru esanahitsua modu batean edo bestean hurrengo egoera batean ikusi egin da: tratu txarrak, jokabide bortitzak eta erlazionatzeko arazoak. Komunikabideen bitartez bullying kasuak handitu direla esaten zaigu, baina, horrelako egoerak oso muturrekoak direla alde batera utziz, egunerokoan ikasleek ikaskideren bat iraindu, bultzatu, jo edo barregarri uzten dutela behatu daiteke ere. Hori ikasgelaren giroan eraginkorra da, taldearen harremanak oztopatuz eta bazterkeria eta ezin egokitze arazoak sortuz.


Oro har, elkarbizitzaren arazoak ikasgela barruan kokatzen dira. Baina zentroari buruzko ikuspegi zabalago eta konplexuago batetik, hau da, eskola osatzen duten pertsonak kontuan harturik, gatazka elkarrekintzetan ager daiteke: irakasleen artean, familien artean, familia eta irakasleen artean, etab.

Egoera horiek ikusirik, beharrezkoa da denon artean lankidetzeta eta bizikidetzeta giroa sortzen duten portaera asertiboak garatzea eta prebentzioa eta jokabide desegokiei erantzuna lantzea. Irakasleek gatazkak konpontzeko tresnak izan behar dituzte eta gainera ikasleek beraiek aipaturiko egoeretan, protagonista edo lekuko izanik, trebetasunak gara ditzaten ahalbidetu behar dute.

Modulu lan honetan talde bakoitzak elkarbizitzan eragiten duen arazo edo gatazka baten kasuaren kontaketa aurkeztu, kasua aztertu eta epe labur eta luzerako konponbideak proposatu beharko ditu.

Prozesuan zehar zalantzak / galderak agertuko dira: zer da elkarbizitza?, gatazkarik eza dela defini daiteke?, eta zer da gatazka?, beti ere negatiboa da?, zein gatazka mota kudeatu daitezke eskolatik?, zein gizarte-eragilek hartu behar du parte gatazka horien konponbidean?, gatazkek prebeni daitezke?, eskolak ekintza planik izan behar luke?, zein kanpoko eragilek erraztu dezakete elkarbizitza, gatazken ebazpena? nola bizi izaten ditugu egoera horiek?...

### 3.1. Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradua



1. Irudia: Aniztasuna Eskolan moduluko grafikoa

#### Proiekturako arduraldia

Moduluko lanak 5 ECTS kredituko balioa izango du guztira, kreditu bat ikasgai bakoitzeko, hau da, zuzeneko 10 ordu eta zuzenekoak ez diren 15 ordu moduluko ikasgai bakoitzeko.

#### 4. MODULUAREN GAITASUNAK ETA IKASTE EMAITZAK

Jarraian K4 moduluaren bidez landuko ditugun gaitasunak zehaztuko dira, eta horrez gain, gaitasun hauek zer nolako ekoizpenetan izango duten isla ere.

K4ko gaitasunak	Ikaste emaitzak
1. <b>Behaketa teknikak erabiliz, datuak bildu</b> , bai haur hezkuntzako gelan eta bai eskola inguruan	Praktikaldian egindako behaketetan oinarrituz, edo euren ikasleen esperientzietatik edanez, <b>aniztasuna zein bizikidetzaz hizpide duen KASU baten eraikuntza.</b>
2. Hezkuntza/Garapen prozesuen <b>faktore nagusiak identifikatzea</b> , bai gela bai eskola mailan.	Eraiki duten KASUan inplikaturik dauden <b>aldagai, faktore, elementuak identifikatzeko gai izatea, hipotesi ezberdinen sorkuntzaren bidez</b> , bai gela bai eskola mailan.
3. <b>Beharrezkoak diren baliabideak eskuratzea, ikasgelan eta zentroan esku-hartze egokia egiteko</b> , ikasleen beharrei eta ikaskuntzako/garapeneko zailtasunei inklusio irizpideen arabera erantzunez	KASUAN agertzen den egoera azaltzeko sortu dituzten hipotesietarako <b>erantzun posibleen zehaztapena eta horretara heltzeko egindako informazio bilaketa.</b>
4. IKTak erabiltzea, norberaren eta elkarlanaren eta ikaskuntzako/garapeneko eta ezagutza eraldatzeko tresna gisa, askotariko baliabide grafikoak eta multimedia-baliabideak erabilia.	<b>Narratiba digital</b> bat sortu honakoa islatzen duena: kontakizunaren testuingurua, identifikatutako heziketa beharrak, epe motz eta luzerako hobekuntzen proposamena eta ondorioak. <a href="#">Informazio gehiago</a>
5. Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialen komunikazio gaitasunak garatzea, erreferentziako Europako esparruaren B2 lortu arte.	Ematekoen eta azken lanaren hizkuntzaren egokitasuna.

6. Koadroa: Gaitasunak eta ikaste-emaitzak

#### 5. KASUAREN KONTAKETA

Kasuen kontaketa bidez praktikaldian edo pertsonalki bizi izandako esperientziaren bat berreraiki nahi da bizi izandakoari zentzua emateko asmoz. Bizipena ez da inoiz guztiz banakakoa izaten eta konponbidea ez da aurkitzen banakako erantzunetan, baizik eta, adostutako erantzun baten ondorioz, kolektiboki eraldatzen gaituzten praktikan (Rivas, 2014).

##### 5.1. HELBURUA

Elkarbizitzarekin edo eskola aniztasunarekin lotutako kasu baten kontaketa landu behar da. Practicumen gertatutako kasu erreala izan daiteke, edo eskolan izandako bizipen pertsonala, edo aurrean aipatutako esperientzietatik aldagaiak erabil daitezke kasu berri bat eraikitzeko.

Zalantzak, blokeoa, erresistentzia, aldatzeko gogoia edota atsekabea sorrarazi dituen esperientzia izan behar da. Taldean partekatu nahi den egoera izango da, ezin izan delako interpretatu edo kasu horrek zalantzak sortu dituelako esperientziaren, bakoitzaren jokaeraren edo praktiketako tutorearen portaeraren gainean.

## 5.2. KONTAKETA ERAIKITZEKO URRATSAK

1. Indibidualki, kontatu nahi den egoera, istorioa, edo aztertu nahi den gatazka erabakiko da. Bakarkako idatzizko kontaketa laburra izango da hurrengo informazioa agerraraziz:

Zer gertatu da?

Zein testuingurutan?

Nortzuk dira protagonistak?

Zer eragina du kontatutako egoerak elkarbizitzan eta eguneroko harremanetan?

Zer erantzuna eman zitzaion gatazkari?

2. Bakoitzak idatzitako kontaketak partekatuko dira eta taldeka bat soilik aukeratuko da garatzeko eta analisia egiteko.

3. Taldearen kontaketa eraikitzeke arauak. Kontaketa horrek hurrengo ezaugarriak izango ditu:

TESTUINGURUA	PROTAGONISTAK
Zentroaren ezaugarriak: eskola publikoa, pribatua; instituzioaren tamaina, erabilitako metodologia, eskolaren antolamendua eta arautegia.	Deskripzioa, nolakoak ziren eta zer egiten ari ziren momentu hartan: adina, generoa, ikasleen pertzepzioak eta itzaropenak.
Gatazka sortu zen taldearen edo klasearen ezaugarriak.	Nork hartu zuen parte lehendabizi kasu bakoitzean, eta zer prozesu jarraitu zuen.
Aztertuko den gatazka edo egoera, non eta noiz sortu zen?	Beste pertsona heldu batzuk zeuden ala ez?
Beste testuinguru batzuen eragina, adibidez, familia (maila ekonomikoa, soziala, kulturala), adin bereko taldekideak, auzoa, komunitatearen biolentzia, komunikabideak, gizartea. Arriskuan dagoen taldean partaidea izatea.	Ea aldeztatik egoera antzekoak sortu ziren (kasuaren aurrekariak).
Gertatutakoaren kontaketa, kasuaren gertaeren sekuentzia azpimarratuz.	

7. Koadroa: Kontuan hartu behar diren faktoreak kasua kontatzeko



Taldekiddeen artean adostutako kontaketa bakarra aztertuko du taldeak. Azterketaren bidez zehaztuko dira gatazka sorrarazi ahal duten sorburuak (instituzionalak, metodologikoak, irakasleek eragindakoak, harremanek egindakoak, familiarrak, edo beste mota batzuetakoak) eta gatazka konpondu ahal duten irtenbide arrazoituak.

## 6. **MODULUKO LANAREN METODOLOGIA**

### 6.1. Kasuaren metodoa

Diziplinarteko lanean erabiliko den metodologia kasu-azterketa edo ikerketa izango da. Teknika hau ikasleak bere ikaskuntza eremuko den arazo erreal eta zehatz baten azterketan oinarritutako ikaskuntza aktibo eta kooperatiboan zentratzen da (SIE-UPM, 2008).

Aurkikuntza-ikaskuntzan oinarritutako irakaskuntza-ikaskuntza metodo honek jakin-mina eta bizitzan zehar egindako ikaskuntza ahalbidetzen duten trebetasunak sustatzen ditu, ikaslea prozesu honen partaide sentitzen dela bultzatuz. Beraz, kasu-metodoak, zer, nola eta noiz ikasten den erabakitzerakoan, ikaslearen partehartze aktiboa eskatzen du. Ikaslea, proposatzen diren egoeretatik eta bertan agertzen diren arazoetatik, ikasi behar diren oinarri edo kontzeptuez jabetuko da, irakaslearen azalpenak itxaron gabe (GIMA-UOV, 2004). Modu honetan, ezagutzaren transmisio eredu tradizionala gainditu egiten da, “jakite” hutsean oinarritzen diren klase magistralen ordez, “egiteko gai sentitzea” eta “egiten jakitea” sustatuz, eta autonomia eta motibazioa areagotuz.

### 6.2. Lan-taldeen antolaketa

Diziplinarteko lana burutzeko 4 ikaslez osatutako taldeak sortuko dira. Taldearen eraketa ikasleriaren ardura izango da, nahiz eta gelatik kanpo burutu beharreko talde-lana errazteko, gertutasun geografikoa eta ordutegien bateragarritasuna kontuan hartzea gomendatzen den. Talde bakoitzari tutore bat esleituko zaio, beti ere inplikaturako ikasgaietako irakaslea izango delarik.

### 6.3. Lanaren faseak

Esku-hartze edo erabakiak hartzea beharrezkoa den kasuen lanketan Martinez eta Musituren (1995) proposamenetik abiatuta, diziplinen arteko modulu lanak honako faseak izango ditu:

### **1. Fasea: Kasu baten hautaketa eta kontaketa.**

Norberaren esperientzia pertsonaletik abiatu, taldekide bakoitzak kasu erreal bat proposatu eta kontatu beharko du idatziz, honako eskema jarraituz:

- Zer gertatu da?
- Zein testuingurutan?
- Nortzuk dira protagonistak?
- Zer eragina du kontatutako egoerak elkarbizitzan eta eguneroko harremanetan?
- Zer erantzuna eman zitzaion gatazkari?

Ondoren, taldeak, kontatu diren kasuetatik bakarra aukeratuko du sakonki lantzeko (ikus 7. koadroa).

### **Fase 2. Fasea: Kasuaren analisia, ikas-beharren identifikazioa.**

Hasieran batean bakarka eta ondoren taldeka, ikasleek aukeratutako kasua aztertu beharko dute, bertan dauden arazo guztiak jasoz eta premiaren arabera ordenatuz. Egoeran parte hartzen duten aldagaiak identifikatu beharko dituzte, indargune eta ahuleziak, ageri diren rol ezberdinak, protagonisten arteko harremanak, bakoitzaren oinarritzapen ideologikoak, etab.

Analisi honen arabera eta taldekideen ezagutzak azaleratuz, bere ikas-beharrak identifikatu beharko ditu taldeak.

Kasua aztertzeko, Zabalak (2014) proposatutako urratsak emango dira:

- kontzeptuen azalpena
- arazoaren definizioa
- ideia zaparrada. Aurretiko hipotesiak.
- ideien antolaketa
- ikasketa helburuak formulatzea

### **3. Fasea: Informazio bilaketa.**

Taldeak kasuaren analisi osoa ahalbidetu eta horren konponbidea erraztuko duen informazioa bilatu beharko du. Horretarako, Zabalak (2014) proposatutako urratsak emango dira:

- bakarkako azterketa: ikasketa helburuetan oinarritutako informazio ikerketa eta bilaketa
- taldean informazioa partekatu eta garrantzitsuena aukeratu.

### **4. Fasea: Epe labur eta luzerako esku-hartzeen proposamenak.**

Kasuaren bakarka eta taldeka egindako analisitik eta bildutako informaziotik abiatuta, talde bakoitzak planteatu duen egoera hobetzeko esku-hartze batzuk proposatu beharko ditu, eta proposamen horien guztien alde onak eta txarrak aztertuko ditu banan-banan, aukeratutako eredu teorikoa kontuan hartuz.

#### 6.4. Antolaketa eta ematekoak

Aurreko ataletan aipatutako fase bakoitzak jarraian zehazten diren dokumentuak tutoreei ematea suposatuko du. Hori guztia ondo gauzatzeko kronograma duzue non datak eta egin beharreko lanak aurkezten diren.

Modulu lanaren KRONOGRAMA:

Ematekoa	Gaia	Data
<b>MODULUAREN AURKEZPENA</b>		
Lehenengo ematekoa	Bakarkako kontaketen aurkezpena eta hautatutako kasuaren kontaketa xehatua.	Otsailaren 19-23ko astea
<b>Martxoaren 5-9, irakasgai bakoitzean 2 tutorizazio saio egingo dira: 1.ematekoaren ERREBISIOA eta 2.ematekoaren PRESTAKETA</b>		
Bigarren ematekoa	Gatazkaren arrazoiei buruzko hipotesiak egitea horri dagokion oinarri teorikoarekin batera.	Martxoaren 19-23ko astea
<b>Apirilaren 23-27 irakasgai bakoitzean 2 tutorizazio saio egingo dira: 2.ematekoaren ERREBISIOA eta 3.ematekoaren PRESTAKETA</b>		
Hirugarren ematekoa	Planteatutako kasuaren erantzun posibleak epe labur eta luzera. Kontaketa digitala. Ahozko aurkezpena.	Amaierako lana bidali behar da maiatzaren 7an gmail-eko <sup>1</sup> postara eta paperez aurkezpen egunean.  Aurkezpenak: Maiatzaren 14-18.

8. Koadroa. Modulu lanaren kronograma

<sup>1</sup>Haur Hezkuntza [k4hhgasteiz@gmail.com](mailto:k4hhgasteiz@gmail.com)  
Lehen Hezkuntza [k4lhgasteiz@gmail.com](mailto:k4lhgasteiz@gmail.com)  
Educación Infantil [k4eigasteiz@gmail.com](mailto:k4eigasteiz@gmail.com)  
Educación Primaria [k4epgasteiz@gmail.com](mailto:k4epgasteiz@gmail.com)

## 7. EBALUAZIOA

[Ebaluazio araudi berriaren](#) arabera, ikasle guztiek eskubidea dute euren kalifikazioa lortzeko ebaluazio jarraia edo mistoaren bidez. Eskubide horri uko egin nahi badio eta amaierako ebaluazioaren bidez ebaluatua izan, idatziz eskatu beharko dio dagokion irakasleari. Horretarako, irakasgaia sei hilekoa baldin bada, dozentzia hasten denetik, 9 asteko epea izango du eta 18 astekoa irakasgaia urte osokoa denean.

**Horrek esan nahi du ebaluazio jarraiari uko egin nahi dion edozein pertsonak, martxoaren 19-23ko astea baino lehen, eskatu behar duela amaierako ebaluazioaren bitartez ebaluatua izatea. Eskaera egiteko *ZENTROKO MODULU AKORDIOEN ETA BIZIKIDETZA AKORDIOEN GIDA*ko eranskinetan agertzen den eredia erabiliko da. (1. ERNASKINA)**

Horrez gain, gida honetan bertan adierazten moduan, ebaluazio jarraiari uko egiten dion ikasleak, irakasgai bakoitzeko azterketan, kasu zehatz bati buruzko galdera bati erantzuz beharko dio azterketa egiten ari den irakasgaiaren ikuspuntua hartuta.

Ebaluazio jarraia aukeratzen duten ikasleek (modulu egin behar duten kasuetan) jarraian proposatzen diren **hiru ebaluazio mota hauen arabera** ebaluatuak izango dira:

- Heteroebaluazioa: Honetan irakasleak talde bakoitzaren ematekoen kalitatea baloratuko du nota bat eskainiz.
- Autoebaluazioa: Norberak bere prozesuaren inguruko autoebaluazioa egin beharko du gaitasunen lorpen maila zein izan den zehaztuz. Hausnarketa pertsonal hau bakarka egindako ibilbidearen ebidentziekin lotuta joan beharko da.
- Koebaluazioa: taldeko hausnarketan oinarrituz, taldekideen artean adostu beharko dute partaide bakoitzari ematen zaion nota.

Jarraian, ondorengo taulan zehazten dira eskatuko zaizkizuen ebidentziak eta portzentajeak:

EBALUAZIO MOTA	EKOIZPENAK	PORTZENTAJEAK
Heteroebaluazioa	Kasuaren kontaketa eta aldagaien identifikazioa	%10
	Eraikitako hipotesiak eta hauen oinarri teorikoa	%20
	Proposamenak / erantzun posibleak	%20
	Ahozko aurkezpena	%30
Autoebaluazioa	Gaitasunen lorpenaren inguruko hausnarketa pertsonala ebidentziekin	%10
Koebaluazioa	Kide bakoitzak egin duen lanaren ebaluazioa	%10

9.Koadroa: Ebaluazioa

## 8. BIBLIOGRAFIA

Grupo de Metodologías Activas (Universidad Politécnica de Valencia) (2004). Método del Caso (ficha descriptiva y de necesidades). Recuperado de <http://www.upv.es/nume/descargas/fichamdc.pdf> (11/1/2016).

Martínez, A., eta Musitu, G. (1995). *El estudio de casos para profesionales de la acción social*. Madrid: Narcea.

Rivas, J. I., Leite, A. E., eta Prados, E. (coord.). (2014). *Profesorado, escuela y diversidad. La realidad educativa desde una mirada narrativa*. Málaga: Aljibe

Servicio de Innovación Educativa (Universidad Politécnica de Madrid) (2008). El Método del Caso. Recuperado de <http://innovacioneducativa.upm.es/guias/MdC-guia.pdf> (11/1/2016)

Zabala, A., eta Arnau, L. (2014). *Métodos para la enseñanza de las competencias*. Barcelona: Graó

1. **ERANSKINA.** Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera

**Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera**  
Irakaslearentzako frogagiria

**Izena:**

**Abizenak:**

**NAN:**

**Irakasgaia:**

**Kurtsoa:**

**Uko egiten dio** ohiko etengabeko ebaluazioko sistemaren bitartez ebaluatua izateari  
**Eskatzen du** ohiko azkeneko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data:

**Etengabeko ebaluazioari uko egitearen eskaera**  
Ikaslearentzako frogagiria

**Izena**

**Abizenak**

**NAN**

**Irakasgaia**

**Kurtsoa**

**Uko egiten dio** ohiko etengabeko ebaluazioko sistemaren bitartez ebaluatua izateari  
**Eskatzen du** ohiko azkeneko ebaluazio sistemaren bitartez ebaluatua izatea.

Irakaslearen sinadura:

Ikaslearen sinadura:

Data: